

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 1
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14



Dokumentu honen kopia kontrolatu bakarra euskarri informatikoan dago eta Intraneteko Q Azpiatarian dago eskuragarri. Dokumentu hau behin inprimatzen denean, kopia ez kontrolatua izatera pasatzen da.

Nork igorria: Ingurumen Laborategiko Buruak Izena: Arrate Lacalle Data: 2020/09/14	Nork onartua: Ingurumen Saileko Buruak Izena: Olatz Unamunzaga Data: 2020/09/14
---	--

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKOA	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 2
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

ALDAKETEN KONTROLA

Edizioa	Kapitulua	Arrazoia	Data
1	Denak	Dokumentuaren hasierako edizioa	08/04/17
2	Izenburua Eranskina Denak	Nekazaritza eta Ingurumen Segurtasunaren Laborategiari izena aldatzea, eta izen horren lekuan Ingurumen Laborategi jartzea. Ingurumen Laborategira laginak bidaltzeko fitxak aldatzea. Euskarazko fitxak gehitu dira. Saiakuntzak/lagin motak laborategiko egungo lanera egokitzea eta akatsak zuzentzea.	09/07/21
3	3.2, 3.3, 3.4. 3.6. Denak Eranskinak	Bidalitako gutxieneko lagin kantitatea doitzea eta 3.3 atala eguneratzea, diagnostiko toxikologikoari buruzko alderdiak kenduta. "Ura eta elikagaiak" atala Toxikologia kapitulutik kentzea. Ilean dagoen klenbuterolari buruzko analisi fisikokimikoa txertatzea. Laginekin batera, laborategirako fitxa behar bezala beteta eta izenpetuta bidaltzeak duen garrantzia adieraztea. Bidalitako gutxieneko lagin kantitatea doitzea, animalia elikaduraren nutrizio balorazioari buruzko alderdiak kenduta. Kapitulu guztien idazketa eguneratzea. Akatsak zuzentzea. Ingurumen Laborategira laginak bidaltzeko fitxak eguneratzea.	10/03/26
4	2 3.2.2 3.5 Eranskinak	Erreferentziako dokumentazioa eguneratzea Ongarri organikoen laginak bidaltzeko jarraibideak Propolia behar den kantitate minimoa azaltzea ENAC alkantzetik kanpo dauden determinazioaren nabariaraztea	14/02/03

 MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKOA	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 3
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

5	Eranskinak	Abere elikadurarako laginak bidaltzeko fitxaren eguneratzea, Salmonella prozedura eguneratzeko	15/02/05
6	Anexo 4 Anexo 5	Lur edo landare laginak bidaltzeko fitxaren eguneratzea, basa landaketatako lurren analisi mota sartzeko. Abere elikadurarako laginak bidaltzeko fitxaren eguneratzea, HCln disolbaezinak diren errautsak pentsuetan eta lehengaietan, irispide adreditatua ezabatzeko.	04/05/18
7	Denak	Berrikuspen orokorra eta baldintza orokorren inguruko informazioa sartu Eztia, propolioa eta urari lotutako eranskina ezabatu Ongarri mineralak laginak bidaltzeko imprimakitik ezabatu	30/01/20
8	Denak 2 3 Anexo	Logo berria Jarraibideak IT/G/N-014 Zenbait laginen jarraibideak bidaltzeko azalpenaren ezabatzea: ongarri organikoak, toxikologia, ulea eta abere elikadura. Bi formatuen ezabatzea	20/09/14

 MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKOA	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 4
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

1. XEDEA

Laginak NEIKEREko Natur Baliabideen Kontserbazioko Laborategira bidaltzeko gida ezartzen da.

2. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTAZIOA

PGC/EN-01, Laginen eta entseguen gestioa.

3. LAGINAK HARTZEKO ETA Natur Baliabideen Kontserbazioko Laborategira BIDALTZEKO ARAUAK

3.1. ANALISI FISIKOKIMIKOA: URA

Analisi fisikokimikoetarako ur laginak, ahal dela, plastikozko ontzietan bildu eta bidaliko dira; dena den, beirazkoak ere onartzen dira. Ontzi horiek kontu handiz garbituko dira erabili aurretik. Era berean, ontzia laginarekin bete aurretik, ontzia bi edo hiru aldiz pasatu beharko da bildu beharreko uretatik. Behin lagina bilduta, ontzia plastikozko tapoi batekin itxiko da. Beti ere, gomazko edo kortxozko tapoiak saihestuko dira. Ur laginak, desestali eta berehala aztertzen ez badira, eboluzionatu egiten dute denborarekin, hau da, karbonatazioa gertatzen da eta pH-a handitu egiten da. Izan ere, pH-a minutu gutxiren buruan alda daiteke. Egokiena da pH-a, temperatura eta disolbatutako gasak, esaterako, oxigenoa eta karbono dioxidoa, bilketa egiten den unean bertan zehaztea. Gainera, pH-alkalinitasun-karbono dioxido oreka aldatzen denean, kaltzio karbonatoaren prezipitazioa gerta daiteke eta kaltzioaren nahiz gogortasun totalaren balioak txikitu.

Laginak garraiatu egin behar izanez gero, onena da ontziaren ahalmenaren %1 inguruko espazio bat uztea, espantsio termikoa ahalbidetzeko.

Laginak biltzeko baldintzak aldatu egingo dira azertu beharreko ura nondik datorren, eta honako jarraibide hauek kontuan izan beharra dago:

- Iturriko ura: lagina zurrustatik zuzenean hartuko da.

 MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 5
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIOAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

- Txorrotako ura edo putzukoia ponpaketa bidez: lagina hartu aurretik, ur kantitate txiki bati kanpora irteten utziko zaio.
- Ibaiko edo erreka ura: bilketa bat baino ezin bada egin, korrontearen erdian eta sakonera ertainean egingo da.

Ustez kutsatzailea den isuri batez ari garenean, gutxienez hiru lagin hartu beharko dira: bat, isurpen gunea baino lehenago; beste bat, isurpen gunean bertan eta hirugarrena, berriz, isurpenaren ondoren. Laginketa guneen arteko distantzia aldatu egingo da isuri motaren eta hedaduraren arabera. Isuri kasuetan, komenigarria da laborategira ur laginak bidaltzeko fitxan -fitxa horren formatua aurrerago azaltzen da- adieraztea laginak non bildu diren, ordena kronologikoa, zein baldintzatan hartu diren, isuriaren erantzukizuna duen enpresaren izena eta ezaugarriak (prozesu mota) eta isuriaren hedadura eta nolakotasuna baloratzeko orduan lagungarri izan daitekeen informazio oro.

Uraren jatorria gorabehera, analisi fisikokimikoak egiteko behar den ur kantitatea litro eta erdi da. Bildu ondoren, laborategira bidali arteko tarte ahalik eta laburrena izan beharko da (24 orduetik behera). Tarte horretan, lagina 4°C-an hoztuta mantenduko da eta, ahal dela, ilunpean. Mikroorganismoen hazkundeagatik aldaketak asko atzeratzen dira lagina ilunpean eta tenperatura baxuan mantenduz gero (beste gauza batzuen artean, jarduera mikrobiologikoak honako aldaketak eragin ditzake: nitrato-nitrito-amoniakoaren edukian izan daitezkeen aldaketak; fenolaren kontzentrazioa eta OEB -Oxigeno Eskari Biokimikoa- txikitzea, eta sulfatoak sulfitotara murriztea).

Laborategira bidaltzeko, ontziei etiketa jarri behar zaie, eta etiketan identifikazio zenbakia, bilketa egin duen pertsonaren izena eta ordu nahiz leku zehatzak adieraziko dira. Laginekin batera, ur laginak bidaltzeko fitxa behar bezala beteta eta izenpetuta joango da; bertan, argi adieraziko dira igorlearen datuak, egin beharreko analisi mota, eta baita uraren jatorriari buruzko datuak ere, hala nola sakonera, egindako tratamenduak, ingurunearen mapa, uraren tenperatura eta korrelazio bat egiteko beharrezkoa izan daitekeen edozein informazio, esaterako, baldintza meteorologikoak, uraren maila, korrontearen abiadura etab.

1. OHARRA: Ur laginei azterketa mikrobiologikoak ere egin nahi izanez gero, kontuan hartu beharko dira halako laginentzako IT-L-S-038an -Laginak Animalien Osasun Laborategira Bidaltzea- adierazitako arauak (irteera zuloa alkoholarekin garbituko da eta lehenengo ur mililitroak bota. Lagina -100 ml- ontzi esteril

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 6
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

batean bilduko da eta, hozte baldintzetan, berehala bidaliko da laborategira). Oro har, azterketa kimikoetarako (organikoak eta ez-organikoak) eta bakteriologikoetarako ez dira lakin berberak erabili behar, lakinok bildu eta manipulatzeko metodoak ez baitira berdinak.


3.2. ANALISI FISIKOKIMIKOA: LURZORUA

Lurzoruaren analisia funtsezko tresna da ongarritzerako, besteak beste, nahikoa ongarritzen ez diren lursailetan produkzioa handitu egin daitekeelako, edo, urtero gehiegi ongarritzen diren lursailen kasuan, gastuak aurreztu daitezkeelako.

Lurzoruaren analisiaren emaitzek lur landu edo landatuaren nutrizio egoera zein den behar bezala zehatz dezaten, beharrezkoa da bildutako lagina sustraiek hartzen duten lurzoru bolumenaren adierazgarri ona izatea. Hori dela eta, jarraian xehatuko diren laginketa arauak jarraitu beharra dago:

Lurzoruaren laginketa arauak

- Laginketa ez da egin behar ongari minerala eman ondoren, ez eta kareztatu edo medeapen organiko bat (simaorra) aplikatu ondoren ere. Halako aplikazioen bat egin bada, gutxienez 4 hilabete itxaron beharko da lakinak bildu aurretik.
- Ezaugarri berdinak dituen lursail bakoitzeko lakin bana hartuko da. Lurzoru mota, malda edo lur landuaren itxura dela-eta eremu desberdinak daudela ikusten bada, eremu bakoitzeko lakin bana hartuko da.
- Lagina hartu aurretik, lakinak hartzen direneko lekua garbitu egin beharko da, hau da, belarrak, orbela eta harririk handienak kendu.
- Lagin bakoitza 15 azpilagin txikik osatzen du; azpilaginok lursailean sigi-saga ibiliz hartzen dira. Pauso kopuru jakin bat egin eta azpilagin bat hartzen da. Pauso kopuru hori lursailaren hedaduraren eta hartu beharreko azpilagin kopuruaren arabera zehazten da. Azkenik, azpilaginok nahastu egiten dira, eta horixe da entregatzen den azken lagina. **Kilo bat** lakin nahikoa da analisiak egiteko.



1 Irudia.- Nola hartu azpilagin bat lurzoru baten.


NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKOA	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 7
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

Dagoen lur landua iraunkorra denean, kontuan izan behar da zuhaitzek edo zuhaixkek zenbat eta urte gehiago izan, sustrai xurgatzaileak enborretik orduan eta urrutiago egongo direla. Hori kontuan izan beharko da laginketa egiteko orduan; hala, sustrai xurgatzaile gehienak dauden lekuan hartuko da lagina. Fruta arbolen sailetan edo txakoli sailetan, herbizida landareen azpian jarrita eta lerro artean errotuta dagoen kasuetan, sustrai xurgatzaile gehienak herbizida jartzen den lekuan egongo dira. Tantakako ureztapena badago, sustrai gehienak tantaz tantakoaren azpian egongo dira.


Laginketaren sakonera aldatu egingo da lur landua zein den, baina arau orokorra hau da: laginak geruza goldagarriaren sakoneran hartuko dira. Modu espezifikoan, honako sakonera hauek gomendatzen dira:

- Laborantza estentsiboak, baratzeak eta berotegiak.....25 cm
- Fruta arbolen sailak, mahastiak eta basoak ... 25 cm eta zorupea
- Ezarritako belardiak.....5-7 cm

Hona hemen gune bakoitzean lagina hartzeko modua:



2. irudia- Pala batekin azpilagin bat hartzeko modua.




3. irudia - Zunda bidez azpilagin bat hartzeko modua.

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 8
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIOARAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

Lur landuaren arabera, X sakonerako zulo bat egiten da, 2. irudian agertzen den legez. Behin paretak garbitu ondoren, paretetako bati luzera osoan lodiera bera izango duen lur xerra bat ebakitzen zaio. Operazioa errepikatu egingo da azpilagina hartzen dugun 10 edo 15 gunetako bakoitzean. Laginak zunda baten bidez har daitezke, 3. irudian agertzen den legez.

Bildutako kantitatea kilo bat baino gehiago bada, azpilagin guztiak nahastu eta gutxi gorabehera kilo bat entregatu beharko da, soberan dagoena botata. Horretarako, lagina kutsatu ez duen ongarririk edo produktu fitosanitariorik eduki ez duen poltsa bat hartzen da. Laginak jarri, zokorrak jo eta nahastu egiten dira. Behin lagina homogeneizatu ondoren, 4 koadrantetan zatitzen da eta bi koadrante aurkajarriak baztertu egiten dira, 4. irudian agertzen den legez. Hala behar denean, berriz laurdenkatzen da, kilo bateko lagina lortu arte. Lagina plastikozko poltsa garbi batean bidaliko da (funtsezkoa da ongarririk edo bestelako produktu kimikorik ez eduki izana) eta argiro adieraziko da zein lagin den.



4. irudia - Laginak nahastu eta laurdenkatzea.

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKOA	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 9
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIOAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

Ongarritzeari buruzko ahalik eta gomendiorik zehatzena eman ahal izateko, komenigarria da laginarekin batera honakoak adieraztea: landatuko den laborearen zein den, azken urtean emandako ongarri kantitatea eta data; azken kareztatzearen edo materia organikoaren ekarpenaren data eta dosia, halakorik balego; aurreko urteko gutxi gorabeherako produkzioa; aurretik zegoen espeziea, eta lurzoruan egiten den ohiko txandaketa. Gainera, lurra lantzean arazorik izan den ere zehaztu daiteke. Informazio hori lurraren edo landare materialaren laginak bidaltzeko fitxan ere idatzi ahal izango da -fitxa horren formatua aurrerago azaltzen da- eta, ahal bada, laginarekin batera bidaliko da, behar bezala beteta eta izenpetuta.

3.3. ANALISI FISIKOKIMIKOA: HOSTOAK

Hostoen analisisien emaitzek lur landuaren nutrizio egoera zein den zehaztu ahal izateko, jarraian xehatzen diren laginketa arauak jarraitu beharra dago:

Hostoen analisirako laginketa arauak

Hostoaren laginketa oso da egokia labore iraunkorretan, esaterako, fruta arboletan eta mahastietan. Horietan urtean analisi bat egitea gomendatzen da. Garrantzitsua da, baita ere, bestelako labore batzuetan, batez ere toxikotasun edo gabezia susmoak daudenean.

Lagin bakoitzak barietate bakarreko hostoak izango ditu. Hostoak pezioloarekin ekarriko dira, eta gaitzik gabeak izango dira.



5. irudia - Hostoa pezioloarekin.

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 10
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

Lagina aluminiozko paperean bildua ekarriko da, beroarekin honda ez dadin. Laginak kodearen bidez edo jabearen izen-deiturarekin identifikatuta egon beharko du. Hainbat lursailetako laginak ekarriz gero, bakoitzak dagokion izena eramango du.


Lagina ez bada hartzen den egun berean analizatzen, hozkailuan sartu beharko da analisia egin arte. Laginak hondatu egin daitezke beroarekin, batez ere umelak badaude.

Hostoak hartzeko modua eta une egokia aldatu egiten dira espeziearen arabera:

3.3.1. Laginketa madarietan eta sagarretan

Sail landatu osoan dauden 25 zuhaitz ausaz hautatu eta bakoitzari lau hosto hartuko zaio, beraz, lagin bakoitza 100 hostokoa izango da. Komenigarria da zuhaitzok markatzea, urtero zuhaitz berberen laginak hartzeko. Lagina zuhaitz bakar batetik edo 2tik edo 3tik hartzen bada, orduan lagin hori ez da lursailaren adierazgarri ona izango.

Kimuak arbolaren erdialdeko herenetik hartu behar dira. Kimuek urtekoak izan behar dute eta ez dute balio ez abar laburrek ez fruitua daramatenek. Kimuen barruan, erdialdeko hereneko hostoak hartuko dira.



6. irudia - Kimu baten zehaztasuna. Lagindu beharreko hostoak ilun daudenak dira.


NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 11
LAGINAK NEIKEREN KONTSERBAZIOA NATURAL BILKIBIDEEN KONTSERBAZIOAKO LABORATEGIA BIDALETZAKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

Ahalegindu beharra dago hostoak arbolaren alde guztietatik -orientazio guztiak kontuan hartuta- hartzen. Laginketa egiteko sasoiak uztail bukaera da.

3.3.2. Laginketa kiwian

Sail landatu osoan dauden 25 landare ausaz hautatu eta bakoitzari lau hosto hartuko zaio, beraz, lagin bakoitza 100 hostokoa izango da. Komenigarria da landareok markatzea, urtero landare berberen laginak hartzeko. Lagina landare bakar batetik edo 2tik edo 3tik hartzen bada, orduan lagin hori ez da lursailaren adierazgarri ona izango.

Adarraren erdialdean kokatutako kimu bateko hostoak hartu beharra dago. Kimuek urtekoak izan behar dute, eta fruitua eduki behar dute. Kimuen barruan, adarrean azken muturrean dagoen fruitu sortaren osteko bigarren hostoa hartuko da. Laginketa sasoiak, fruitua sortu ostetxoan izaten da.




7. irudia - Lagindu beharreko kimuaren zehaztasuna.

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 12
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

3.3.3. Laginketa mahastian

Lagin bakoitza gutxienez 30 hostok eta gehienez ere 60k osatzen du. Hostook ausaz hautatutako hainbat mahatsondotatik hartuta egongo dira. Mahatsondo bakoitzeko hosto bat hartuko da. Komenigarria da mahatsondoak markatzea, urtero mahatsondo berberen laginak hartzeko. Lagina landare bakar batetik edo 2tik edo 3tik hartzen bada, orduan lagin hori ez da lursailaren adierazgarri ona izango.

Hartuko den hostoa bigarren mahats mordotik gora bigarrena dagoena izango da. Laginketa sasoia negua da.



8. irudia.- Lagindu beharreko hostoaren zehaztasuna.

3.3.4. Arazoak dituzten sail landatuetako hostoen laginketa

Nutrizio arazo baten susmoa dagoenean egiten da, izan nutrienteren bat gehiegi dagoelako izan gutxiegi dagoelako. Bi lagin ekarri behar dira, bata arazoak daudeneko lekutik eta bestea arazorik ez dagoen lekutik. Jarraian lagina hartzeko modua azaltzen da:

- Arazoak dauden eremuko lagin bat hartzen da.
- Madari, sagar, kiwi eta mahastirako lehenago eman diren jarraibideei jarraitzen zaie.
- Ez da hartu behar hondatutako, horitutako edo mantxadun hostorik, ezta hosto lehorrik ere. Onena da eremu bereko hostoak hartzea, baina sintomarik apenas daukatenak.
- Halaber, hasierako sintomak eta sintoma aurreratuak dituzten hosto batzuen lagina ere ekarri beharra dago, sintomatologia ikusi ahal izateko.

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKO	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 13
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIOAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

- Arazorik ikusten ez deneko eremu bateko lagin bat hartzen da.
- Arazoa ikusten ez deneko eremuko lagin bat hartzen da, hala sail landatuan bertan edo, hobe, inguruko beste ekoizleren baten sail landatuan. Garrantzitsua da lagin biak (arazoduna eta arazorik gabea) egoera fenologiko berean dauden landareetakoak izatea, analisiak konparatu ahal izateko.
- Lehenago eman diren jarraibideei jarraitzen zaie.
- Lagina ohiko laginketa unean -aurrez zehaztu dena- ekartzen bada, ez dago arazorik ikusten ez zaion eremu batetik hostorik ekarri beharrik, zeren eta beste ekoizleek ekarritako laginak edukiko baititugu konparatzeko.

Bestelako labore batez ari bagara, laginketa modua kontsultatu egingo da.

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE	JARRAIBIDE TEKNIKOA	IT/L/A-004 Edizioa: 08 Orria.: 14
LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK		Onarpena: 2020/09/14

1. ERANSKINA: LUR EDO LANDARE LAGINAK BIDALTZEKO FITXA

**LAGINAK NEIKEREKO NATUR BALIABIDEEN
KONTSERBAZIOARAKO LABORATEGIRA BIDALTZEKO
JARRAIBIDEAK**

Onarpena: 2020/09/14

I

LUR EDO LANDARE LAGINAK BIDALTZEKO FITXA
(Imprimakiaren datu guztiak betetzea derrigorrezkoa da)

Erregistro zkia:

Sarrera data:

Ezkaintza zkia:

BIDALTZAILEA:		NAN/IFK:	
Tfnoa	Faxa	E-maila	
Helbidea			
P.K.	Hemaldea	Laginaren erreferentzia	
JABEA:		NAN/IFK:	
Tfnoa	Faxa	E-maila	
Helbidea			
P.K.	Hemaldea		
Ustialekuaren kodea	Poligonoa	Lurzatia	

LAGIN MOTAK (Hautatu X baten bidez)	Laborantza	Lagin kopurua
	Negutegia	Baratza
	Fruta-arbolak / Txakolia	Basogintza
	Adina	Beste batzuk
☐ LUR		
☐ LANDARE		

LURRETARAKO ESKATUTAKO ANALISIAK			
Hautatu X baten bidez	Parametroa	Metodoa	Prozed.
☐	Ehundura	Laser Difrakzioa	PEC/EN/A-081
☐	Ehundura	MAPA Met. Of.	PEC/EN/A-102
☐	pH-a	Potentiometria	PEC/EN/A-105
☐	Konduktibitate elektrikoa	Konduktibimetria	PEC/EN/A-104
☐	Materia Organikoa (Oxidalea)	Balorazioa	PEC/EN/A-098
☐	Nitrogenoa Guztiak	Kjeldhal	PEC/EN/A-110
☐	Olsen Fosforoa	Espektrofotometria	PEC/EN/A-071
☐	Karbonatoak (pH>7.5 bada)	Valoración	PEC/EN/A-108
☐	Kareharm aktiboa (pH>7.5 bada)	Balorazioa	PEC/EN/A-100
☐	Kaltzio asimilagarria	Absortzio Atomikoa	PEC/EN/A-107
☐	Magnesio asimilagarria	Absortzio Atomikoa	PEC/EN/A-107
☐	Sodio asimilagarria	Absortzio Atomikoa	PEC/EN/A-107
☐	Potasio asimilagarria	Absortzio Atomikoa	PEC/EN/A-107
☐	Elkartrukaketa kationikorako gaitasuna	Espektrofotometria (COHEX)	PEC/EN/A-255
☐	Aluminioa (pH<5.8 bada)	Balorazioa	PEC/EN/A-109
☐	Metal astunak (Fe, Mn, Cr, Cd, Pb, Ni, Zn, Cu, S)	ICP/AES	PEC/EN/A-097
☐	Nitratoak	Espektrofotometria	PEC/EN/A-060
☐	Amonioa	Espektrofotometria	PEC/EN/A-059
☐	Materia Lehorra	Grabimetria	PEC/EN/A-050
☐	Ongarriketa aholkua		